

Bilboko bere egoitzan, langile honen beharrea da:

FINANTZA ESTRATEGIAREN ARLOA

Finantza estrategiako teknikari analista

Finantza Estrategiaren Arloko arduradunaren menpe lan eginez, eginkizun nagusi hauek izango ditu:

- Merkatuaren segimendua eta azterketa egitea, finantza sistemaren barruan izan daitezkeen beharrak edo «merkatu akatsak» hautemateko.
- Kapital eta finantza merkatuei buruzko ikerketa eta azterketa orokorra egitea; bai eta enpresa sareari zuzendutako eskualdeko, estatuko eta/edo Europako finantza ekimen eta tresnen esparruari eta joerari buruzkoa ere.
- FEI-k eskaini beharreko produktuak proposatzea eta diseinatzea, merkatuaren segimendua eta merkatuan hautemandako aukerak oinarri hartuta.
- Erakundearen diruzaintza kudeatzea. Erakundearen jardueren finantzaketa planifikatu eta programatuko du, bai eta finantzaketa horretarako beharrezkoak diren zorpetze eragiketak kudeatu eta negoziatu ere.
- Adierazleen definizioa, analisia eta segimendua egitea, finantzaketa lerro edo produktu bakoitzari lotutako Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez.
- Finantzaketa lerroen, abalen edo kapitaleko partaidetzen kudeaketari, ebaluaziolari eta segimenduari buruzko txostenak egitea; edo Zuzendaritza Nagusiak eskatutako beste edozein txosten.
- FEI-ren jarduera ildoak sustatzeko eta merkaturatzeko neurriak proposatzea.
- FEI-ren komunikazio eta informazio publikoko kanalak kudeatzea.
- Informazio sistemak garatzea, ekipoen mantentze lanak egitea eta programak garatzea, finantza arloarekin lankidetzan.
- Datu baseak ustiatzea, eta lehiarako inteligentziako eta zaintza teknologikoko sistemak ezagutzea eta garatzea.

Zer eskatzen den:

- Gradua edo lizentzia, ondorengo ikasketa arlo hauetakoren batean:
 - Administrazioa eta enpresak
 - Ekonomia
 - Finantzak eta aktuariala
 - Finantzak eta kontabilitatea
- Antzeko lanpostu batean lan esperientzia izatea, gutxienez 2 urtekoa.
- Ezagutzak:
 - Office paketearen erabiltzaile aurreratua izatea. Ezinbestekoa da Excel erabiltzen aditua izatea.
- Ingeleseko B2 maila.

Aintzat hartuko ditugu:

- Euskara jakitea.
- Finantza arloko masterra eta/edo prestakuntza espezifikoa; eta egiaztatutako ezagutzak gai hauetan: *big data*, *data mining*, lehiarako inteligentziako sistemak eta zaintza teknologikoa.

Diru ordainsaria: 45.437,14 €

Hautagaiak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 30ean amaituko da.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Legeari (3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 5koa) jarraituz tratatuko dugu jasotzen dugun informazioa.

Erref.: 6.005